

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren laburpena: erabaki horren bidez, Autonomoentzako Txekeak 2026 dirulaguntzen udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa onetsi ziren

BDNS(Identif.): 894819.

Dirulaguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Dirulaguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/894819>).

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da, bai eta haren testu osoa ere Espainiako Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (<http://www.vitoria-gasteiz.org>) kontsulta daitezke.

Lehena. Onuradunak

Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

- LAABen alta eman zuteneko egunetik Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea.
- LAABen alta lehenengo aldiz 2024ko abenduaren 13a baino geroago eman izana.
- LAABeko alta indarrean egotea, eta alta emanda egon izana, etenik gabe, 12 hilabetez gutxienez, lehenengo altaren egunetik. Baldintza hau ezinbestean bete behar da eskabidea egitean. Data batetik bestera zenbatuko da.
- Langile autonomoek garatzen duten jarduerari dagokion EJZren epigrafean alta emanda egon beharko dute, eta etenik gabe alta emanda egon izana LAABeko altaren egunetik. Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kide diren pertsonen kasuan, betekizun bera bete beharko da.
- Beterik izan behar dituzte Foru Ogasunarekiko betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Gasteizko Udalarekiko tributu-betebeharrak. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntza-eskabidea tramitatzeke prozesu osoan ere bete beharko da betekizun hori (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).
- Ez jaso izana dirulaguntza edo laguntza publikorik eskuratzeko aukera galtzea dakarren administrazio-zehapenik edo zigor penalik, eta ez egotea horretarako desgaitzen duen inolako lege-debekuren penalik (barnean direla sexuagatik diskriminazioa eragitearen ondoriozko debekuak, edota emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzearen ondoriozko debekuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera).
- Ez egotea, halaber, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan dirulaguntzen onuradun izan ahal izateko jasotako gainerako debekuetako batean ere.
- Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak betetzea.

Bigarrena. Xedea

Laguntzen bidez, sustapenerako helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

- Vitoria-Gasteizko produkzio-ehunaren lehiakortasuna hobetzea.
- Lan autonomoa sendotzen laguntzea.

Deialdi honen bidez, Vitoria-Gasteizen autonomoentzako txekeak deritzen laguntzak konkurrentzia sinplearen erregimenean emateko baldintzak ezarriko dira; Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian (LAAB) lehen alta ematea finantzatzeko xedea izango dute laguntzek (derrigorrezkoa dute gutxienez urtebetez alta emanda egon izana).

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta konkurrentzia sinplearen prozeduraren bidez emango dira.

Hirugarrena. Deialdiaren oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udalbatzak, 2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari, zeina azkenean ALHAOn argitaratu baitzen, 2023ko uztailaren 28an (ostirala), 88. zenbakian, eta 2023ko urriaren 1ean sartu baitzen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 6an onetsi zituen autonomoentzako txekeak 2026 izeneko laguntza ekonomikoen udal deialdiaren oinarriak.

Biak ala biak (deialdia eta oinarriak) kontsultatu daitezke Udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honek 100.000,00 euroko zuzkidura du, 2026rako onetsitako udal aurrekontuko 2026.0821.4331.489,50 partidari (autonomoentzako txekeak 2026) baliagarri dagoen saldoaren kontura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdi honek eskabideak egiteko bi epe izango ditu, bata bestearen ostekoak:

- Lehen epea (1. fasea): 2026ko irailaren 1etik 2026ko irailaren 15era arte, biak barne.
- Bigarren epea (2. fasea): 2026ko irailaren 16tik 2026ko abenduaren 15era, biak barne.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 6a

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko AOTa
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ